

## 2019-06-04ko EZ-OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2019ko ekainaren 4an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ez-ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo Iturralde eta Jesús María Alonso Insausti.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

### LEHENENGO GAIA

#### **AURREKO AKTA ONARTZEA (2019-04-30).**

Udalbatzak, aho batez, 2019ko apirilaren 30eko bileraren akta onartu du.

### BIGARREN GAIA

#### **ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019/82 DEKRETUTIK 2019/117 DEKRETURA BITARTEAN.**

Alkateak 2019/82 dekretutik 2019/117 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Eztabaida:

Olaia Nieto zinegotziak (EH Bildu) adierazi du txakur baten koskari dagokion Dekreturi buruz, bertan adin txikiko umearen izena agertzen dela.

Idazkariak erantzun du dekretu hauek ez direla argitaratzen publikoki.

Olaia Nieto zinegotziak (EH Bildu) adierazi du pilonarekin izandako istripuaren dekretuari buruz, denbora asko pasa dela istripua gertatu zenetik eta orain egin zaiola errekerimendua partikularri kalteak ordaintzeko.

Idazkariak erantzun du pilonaren mantenua eramaten duen enpresak orain konpondu dituela kalteak eta orain pasa dutela faktura.

Olaia Nieto zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea nola dagoen urdaitegiko zarataren arazoa.

Alkateak erantzun du neurketa egin zela eta emaitzak ikusi zirela partikularrekin. Errekerimendua egin zela jardueraren konponketak egiteko eta oraindik epean dagoela.

## HIRUGARREN GAIA

### 2018KO IRURAKO UDALAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ALKATEAREN DEKRETUA JAKINARAZPENA.

2019KO maiatzaren 27ko 114/19 Alkatearen Dekretua jakinarazten da:

“Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

## EBATZI DUT

**Lehena.-** Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n:		+688.406,58
		+228.354,58
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		
Aurrekontuko zordunak :	222.911,52	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	5.338,06	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	-105,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		-195.530,17
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	101.242,73	
Sarrereren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	94.287,44	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	

4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):	+721.230,99
5.- Saldo kobra-gaitzak:	-70.850,38
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):	+650.380,61
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):	+650.380,61
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	+115.636,02
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	109,60
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	124.994,47
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	00,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	+381.815,07
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	00,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	00,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	00,00

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udaltzari jakinaraztea zail edo kobra gaitzak diren eskubideak zehaztatzeko irizpideak hauek direla:

- Joan den urteko ekitaldi ekonomikoan kobratzeko eskubideetatik ordaindu gabe dagoen kopurua %50ean murriztuko dela.
- Duela bi urteko edo gehiagoko ekitaldi ekonomikoetan, kobratzeko eskubideetatik ordaindu gabe dagoen kopurua %100ean murriztuko dela.

**Laugarrena.-** Dekretu honi eranstean zaio Idazkari Kontu-hartzailearen txostena. Bere txostenaren arabera Udaltzari jakinarazten zaio: Likidazio honek betetzen duela aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren araudia.

Baina ez du betetzen gastu araua. Horregatik Udal honek Plan Ekonomiko-finantzarioa egin beharko luke, gutxienez 2019-2021 epealdia aurreikusi beharko duena eta jarduneko urtean (2019) edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Horregatik Udaltzari jakinarazten zaio:

- a) Gastu arauaren ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz dela.

- b) Planaren ordez, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan hirugarren apartatuan aurreikusitako komunikazio egiten zaio Udalbatzari: ziurtatzen dena hori gertatu dela eta udalaren finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatu egiten duen Kontu-hartzailearen txostena.

**Bosgarrena.**- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **LAUGARREN GAIA**

#### **EUSKAL FONDOAREN DIRU LAGUNTZAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

2019ko apirilaren 4an Udalbatzak erabaki zuen Euskal Fondoari 1.500 euroko diru laguntza P305 egitasmoari baina orain jakinarazi digute programa honen finantzazioa osatuta dagoela. Horregatik beste egitasmoa aukeratu behar da.

Hori ikusia, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

### **ERABAKIA**

1.500 euroko dirulaguntza, P305 egitasmoari eman ordez, ondorengo egitasmo honi ematea:

P301K: Cruz Verde komunitateko ur edangarriaren sistema hobetzea.

### **BOSGARREN GAIA**

#### **IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.**

Txosten hauek jakinarazten dira:

- Ordainketaren Epearen Informazioa: 2018ko 1º, 2º, 3º eta 4º hiruhilabetekoak eta 2019ko 1º hiruhilabetekoa.

- 21/2003, Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzkoaren 70.6 behartzen duen txostena: kontu – hartzailetzako organoak eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan txostena.

Udalbatzak jakinaren gainean geratu da.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "[www.irura.eus](http://www.irura.eus)" helbidean.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:45an eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA